



KIROLAK: ZALDIBARKO BIGARREN ALDIA ABIAN

Arrasate

P R E S S

2001.eko
apirilaren 20a
537. zenb.

GAZTE
TE
LE

Arrasateko
10 urte
Gaztetxeak

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirodegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Golz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analsi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lumbalgia) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

urteurrenak

Alde zaharra berritu

■ 61. zenb.

(1990-04-27)



Udalak alde zaharra konpontzeko egitasmoa aurkeztu zuen osoko bilkuran. Gune hori berregokitzeko azterketa 1985ean jarri zuten abian, Mankomunitateak bultzatuta. Ondorengo faseetan, Gazteluondo, Maala, Olarte eta Otalora kaleak aztertuko lirateke. Berregokitzearen aurre-planifikazioa egin zuten, Jaurlaritzak zenbateko dirulaguntza eman beharko zuen kontuan hartzeko.

Grebak nolabait konpondu

■ 61. zenb.

(1990-04-27)

Zenbait greba bertan behera gelditu ziren. Jomako langileak eta zuzendari-tza akordioa egin zuten, soldatak igo eta lan-istripu bajetan %100 ordain

zedin. Santa Agedako psikiatrikoko langileak lanera itzuli ziren, greba legala egiteko epea bukatu eta gero, akordioa egin ez zuten arren. Eskualde ospitalean eta anbulatorioan 20 eguneko greba egin, eta behin-behineko langileak lanera itzuli ziren, ELA, CCOO eta UGTk Osakidetzarekin hitzarmena sinatu eta gero.

Sei arrasatear epaituta

■ 61. zenb.

(1990-04-27)



zortzi urte kartzela eskatu zituen laurendako, eta lau urte beste biendako. Arbolapetatik irtendako autobusez gain, manifestazioak, ikastetxeetan egindako grebak eta senideen karteladak egin ziren epaiketen aurka.

Astelehen eta martitzenean, sei arrasatear epaitu zituzten Madrillgo Auzitegi Nazionalean. ETAko kide izatea leporatu zieten. Fiskalak

besteek esana



Gran Hermano ez dut inoiz ikusten. Badakit zertaz dihoan, baina ez zait batere interesatzen. Horrek baino garrantzi handiagoa daukaten programak ikusten ditut. Nire ustez, telebista erabiltzen jakin behar da. Era berean, amorrua ematen dit edozein ordutan telebista jarri eta ematen duten gutzia horri buruzkoa izatea. Haserretu egiten naiz, eta telebista itzali egiten dut. Horretarako, nahiago dut kalera irtetea. Telebista erabiltzen jakin behar da, eta interesatzen zaizkidan programak ikusten ditut soilik: *Teleberri*, *Goenkale*, *Policías*—beste telesailak nola egiten diren jakiteko—. *Bertatik Bertara* ere oso gustuko dut.

Anuska Lasa


AKTOREA

Arrasate irratia

(2001eko apirilaren 18a)

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Txutxumtxuak 9/10
- Auzoz auzo 19
- Asteko hitzorduak 4
- Asteko Gaia 12/13
- Zaharrago eta zuhurrago . 20
- Inkesta 5
- Kirolak jokoan 14/15
- Uhinetan barrena 21
- Astearren errepasoa 6
- Zaldibar areto futbola . . . 16
- Foto zaharra 22
- Orain eta hemen 7/8
- Kulturaren txokoa . . . 17/18



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11, Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Iker Barandiaran. Kazetariak: Ubano Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. Publizitateak: Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezbar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Alex Azkarate. Asteburuetako berriemakaldea: Lorea Agiriano. Banaketa arduraduna: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Loge-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualaria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 14:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

taila ikastaroa

Apirilaren 23an hasiko da ARTEK antolatutako taila ikastaroa. Izena emateko, deitu

gau partean Felixi (943 79 40 79) edo Jose Mariri (943 79 77 57).

gazteendako ekintzak

Datorren asterako, gazteendako hainbat ekintza antolatu ditu Txatxilipurdik: hilaren 21ean, taloak AEDko tabernan; eta 25ean,

film emanaldia San Andresko Gazte Txokotan.

1936ko emakumeak

1936an jaiotako emakumeek ospakizuna egingo dute maiatzaren 12an: 13:00etan, meza parrokian, eta 14:00etan, bazkaria Alda-

pen. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5a da, Aldape tabernan.

begirale izateko aukera

Txatxilipurdik luzatu egin du begirale izateko izena emateko epea. Apirilaren 27a arte

izango duzue aukera esku hartzeko.

emakumeendako ikastaroa

Egunotan, emakumeendako hainbat ikastaro hasiko dira. Hilaren 24an, Ekin Emakumeak-ek antolatutako eskulan ikastaroa; 25ean, areto dantza ikastaroa; eta hilaren

26an, udalak antolatutako Zahartzen Ikasiaz tailerra. Lehenengo bietan izena emateko, deitu 943 77 12 28 telefonora; hirugarrenako, berriz, 943 79 09 00ra.

odol emaleei oharra

Arabako odol emaleen elkarteak odol ateratzeak egingo ditu. Apirilaren 23an, 24an eta

30ean eta maiatzaren 7an eta 8an egingo dituzte, anbulatorioan, 16:15etik 20:00etara.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 20
• Morales, Araba

Zapatua, 21
• Azkoaga, Ferrerías

Domeka, 22
• Azkoaga, Iturriotz

Astelehena, 23
• Corcuera, Aranbarri

Martitzena, 24
• Irizar, Erguin

Eguaztena, 25
• Amezua, Santa Marina

Eguena, 26
• Zabala, Zarugalde



TOLDOS LECE C/B

Eguzkiari aurre egiten diogu inork baino hobeto

Kataide Industrialdea, 14
Musakola • ARRASATE
Tel.: 943 79 23 83
Faxa: 943 77 04 45

Joaten zara herriko kirol taldeak animatzera?

Jeneralean, oso jende gutxi joaten da herriko kirol taldeen partiduak ikustera



Amaia Carrillo
(Ikaslea)

Noizean behin baino ez.



Ziortza Agirreurreta
(Ikaslea)

Futbolera, batez ere. Hori behar da-eta, jendea animatzera joatea.



Asier Bengoa
(Langilea)

Bai, Mondra animatzera joaten naiz ahal dudan guztietan.



Aitor Azkarate
(Ikaslea)

Bai, futbol eta saskibalo taldeak txalotzera joaten naiz.



Raquel Vita
(Langilea)

Lehen, saskibaloian jokatzenuen, eta nire herriko, Eskoria-tzako, taldea ikusteko ohitura nuen. Orain ez dut astirik.



Luis Madina
(Erretiratua)

Noizean behin hurbiltzen naiz, bai. Denok joan behar ko ginatete taldeok animatzera.



Oscar Fernandez
(Langilea)

Ez. Futbola da nagusi, eta nik ez dut gustuko. Patinajea edo pilota partidutara gustura joango nintzateke.



Melina Lopez
(Ikaslea)

Ez dut ohiturarik, ez naitzelako larregiko kirolzalea.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

USTEAK USTE

10 urte eta lan ugari egiteko

Gaztetxeak 10 urte bete ditu dagoeneko. Ospitale zaharreko eraikina gaztetxe bilakatu zeneko egun zehatzik ez badago ere, urteak oporraldi mugikor hauen inguruan ospatu ohi dira. Honakoa urteurren borobila bada ere, gaztetxeen bizitza ziklikoa den heinean, garai hobeak eta txarragoak igaro ditu gazteen guneak, eta ospakizunak antolatzarekin batera, gaztetxeari bultzada berria emateko deialdia egin dute gazteek. Erronka berriak lantzeko une aproposa izan daiteke, edo zaharrago batzuk berreskuratzeko, bai horixe, baita gazteria parte hartze eta talde-lanean inplikatzeko ere. Hor dago baita gaztetxe berriaren proiektua, eta ondo heldu beharko zaio. 80ko hamarkada oso oparoa izan zen, 90eko hamarkadaren erdia ere bai, eta orain pasibotasuna jaun eta jabe dela sinistarazi diguten arren, oraingo hamarkadan gazteek zer egin eta zer eraiki badute. Arrazoiak, behintzat, mila dira...

Iker Barandiaran

astea bi hitzetan

■ Greba orokorra

Faxismoari aurre egiteko eta burujabetzaren alde lelopean EHk pasa den martitzenerako deitutako greba orokorrak askotariko erantzuna izan zuen Debagoienean. Ezker abertzalearen arabera, erantzuna zabala izan zuen deialdiak; enpresariendako, ostera, ez zen horrela izan. Herriko denda eta taberna gehienek ateak itxi egin zituzten, baina enpresa gehienetan lan egin zuten, kooperatibetan barne. Gasolina zerbitzuguneak ireki egin zituzten, eta baita banketxeak eta aurrezki kutxak ere, eta PESAk eguneroko moduan eskaini zuen zerbitzua.

Goizean, bi manifestazio egin zituzten, eta iluntzean, beste bat. Tentsio une bakarra izan zen, zenbaitzuk piketeak egiten saiatu

zirenean. Bestela, ez zen istilurik izan, eta ezta atxilotarik ere.

■ MU Ordizian

Eguaztenean, Mondragon Unibertsitateak Ordiziako campusa inauguratu zuen: Goierri Goi Maila Eskola. Ekitaldian, Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Inaxio Oliveri, Mondragon Unibertsitateko errektore Javier Retegi, Goierri Lanbide Eskolako presidente Iñaki Otano eta Ordiziako alkate Alejandra Iturriotz egon ziren.

■ Aberri Eguna

Gainerako herrietan moduan, Mondragoen ere Aberri Eguna ospatu zuten domekan. Zenbait herritar herriko plazan elkartu eta omenaldia egin zioten Iku-

rrinari. Herriko udalean jarri, Aureskua dantzatu, eta gero, Udalbiltzaren manifestua irakurri zuten. Gero, herri bazkaria egin zuten, eta arratsaldean bat egin zuten Iruñeko manifestazioarekin.

■ Versus data

Ikerlanek, Mondragoeko ikerketa guneak eta Ibermatikek, informatika taldea eratu dute: Versus Data.

Enpresa berriak Donostian eta Arrasaten izango ditu egoitzak. Guztira, sei langilek egingo dute lan, eta lehenengo urtean ehun milioi fakturaztea espero dute.

Elkarteak teknologia, jakintza eta esperientzia eskainiko die informazio sistemak hobetu nahi dituzten enpresei. PDM sistemak egiten dituzte, produktuak sailkatzeko sistemak, alegia.

■ Urrezko Q

Hilaren 11n, Copreci enpresak Urrezko Q saria jaso zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. Kalitatea hobetzen egindako aurrerapenagatik jaso du saria Coprecik, eta Irizar Kooperatibaren ondoren, berau da Urrezko Q saria jasotzen duen bigarren euskal enpresa.

1999an eman zion Eusko Jaurlaritzak Zilarrezko Q saria Copreciri, eta bi urteren buruan eskuratu du urrezkoa.

Coprecin zegoela, lantegia ikusteko aukera aprobetxatu zuen lehendakariak, eta lantegiko bost guneetan egin zituen geldialdiak: etxe konforta, gas egosketa, egosketa elektronikoa, garbigailuen osagaiak eta mikrouhinak.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

MADINA ZURAK
Aroztegia

Olak, aglomeratuak,
kontraxapatuak, tablexa, ateak,
egurrezko leihoak, oin-inguruak,
zangoak, aroztegiko osagarriak.

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78


Hauteskunde-mahaietako partaideak zozkatu dituzte

Datorren maiatzaren 13an hauteskunde-mahaietan lanean jardungo duten herritarrak zeintzuk izango diren zozkatu zuten martitzenean udalean.

Arrasaten, guztira, sei eskola izango dira bozketarako: San Frantzisko Xabier ikastola, Santa Marinako alkatetza, Musakola herri eskola, San Andres herri eskola, Erguin herri eskola eta Jokin Zaitegi ikastola. Eskoletan 31 mahai jarriko dituzte, eta mahai bakoitzean bederatzi herritar izango dira: hiru titular (presidentea eta bi kide) eta sei ordezeko. Hortaz, 279 lagunenez izenak aukeratu zituzten martitzenean. Orain, lagun horietan etxera bidaliko diete jakinarazpena, eta hortik aurrera, zazpi egun izango dituzte errekamazioak egiteko.

DERRIGORREZKOA

Izan ere, legez, nahitaezkoa da hauteskunde-mahaian egotea. Eta, ezin duenak hori egin, Bergarako epaitegira jo beharko



du, hango Hauteskunde Sailera, eta han justifikatu egin behar du zergatik ezin den egon. Justifikazio hori beharrezko ziurtagiri eta dokumentazio guztiarekin aurkeztu beharko da, bestela, ez du ezertarako balio.

Mahaian egongo dena, ostera, 08:00etatik 20:00ak arte egon beharko da eta lansari moduan, 11.000 pezeta jasoko ditu.

ENA

Bestalde, hauteskunde-

mahaietan egongo direnendako argibideak banatzen hasi da Herrizaingo Saila, eta bertan zehazten denez, botoa emateko honako agiriak onartuko dira bakarrik: Nortasun Agiri Nazionala eta pasaportea. Horiez gain, besteren bat onartuz gero, adibidez, Euskal Nortasun Agiria (ENA), zazpi eta hamabost astebukera arteko espesxe zigorra edo 30.000-300.000 pezeta arteko isuna jasoko da.

Horrez gain, ENArekin emandako botoa ez da onartuko.

Espaloiak itxuratzen



Zigorrola inguruko espaloiak hasi dira itxura berria erakusten. Gorri-gorri ikusten dira orain, izan ere, udalak material berria erabili du auzo horretako zenbait espaloi berritzeko. Hain justu, Gernika Zumardian dagoen zoru bera jarri dute, itxura denez, oinezkoendako egokiagoa da eta.

Lanak bi alditan egiten dihardute. Lehenengoan, San Lorentzo kaleko espaloiak berritu zituzten, eta orain, Elkano kalean dihardute.

Berriztatze lanak egiteaz gain, ezinduendako ere egokituko dira espaloiak, Eusko Jaurlaritzak agintzen duenari jarraiki.

Coprisa enpresa ari da lanok egiten, eta ia 20 milioi pezetako aurrekontua du.

Enpresa-gestiorako ikerketagunea

LKS-k enpresa-gestioarekin lotutako ikerketa zentroa egiteko asmoa du aurtengo jardunaldian. Horixe da 2001. urterako finkatutako jomugetakoko bat. Horrekin batera,

besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan punta-puntako enpresa izan nahi du. Era berean, LKS-k zabalkundearekin segitu gura du, hau da, beste leku batzuetara hedatu

gura du. Dagoeneko hainbat tokitan ditu bulegoak.

Zenbakiei begiratu gero, 4.270 milioi pezeta fakturatzeko asmoa du, iazko jardunaldiaren antzera.

Hilabete barru beilatokia izango dugu



Jadanik hasi dituzte San Kristobal hilerrian beilatokia egiteko lanak. Frixi enpresa da lanon arduraduna, eta hiru milioi pezetako aurrekontua du. Maiatzarako bukatuko dituzte lanak, baldintza hori jarri baitu udalak.

Errausteko makinaren zerbitzua geroago adjudikatuko dute, lehiaketa bidez. Edozelan ere, bigarren zerbitzu hori urte bukararako abian jartzea espero du udalak.

Tanatorioak hiru gela izan-

go ditu, hozkailudunak hirurak. Hozkailuetan gordeko dituzte gorpuak. Horrez gain, laugarren gela bat ere izango du, bisitariendako. Hortik ikusi ahal izango dute gorpu nola erre eta manipulatzeko duten.

Odol ateratzeak

Oraingo astean hasita datorren maiatza arte, odola emateko deia egin diete herritar guztiei. Astelehena, 23, martitzena, 24, eta astelehena, 30, dira odola emateko egunak apirilean. Maiatzean, berriz, astelehena, 7, eta martitzena, 8, izango dira emateko egunak. Orduetgia: 16:00etatik 20:00etara, betiko moduan, ambulatorioan.

18-65 urte arteko herritarrek eman ahal dute odola. Eta ez dago zertan baraurik joan. Nahikoa da azken otordutik gutxienez bi ordu eta erdi igaroz izana.

Burujabetzaren proposamena



Burujabetzaren aldeko hitzarmen nazionalaren aurkezpena egingo du EH alderdiak Mondragoen. Datorren eguaztenean izango da, hilak 25, Alai zinemaren, 19:00etan, eta hizlaria Arnaldo Otegi izango da, EHko bozeramailea.

Antolatzaileen esanetan, "EH bidegurutzera heldu da, eta historian aldiro gertatzen den moduan, hautu bat egiteko momentura heldu da. Espainiako eta Frantziako estatuaren menpe geratu edo burujabetzaren aldeko apustua egiteko garaia da".

Gaineratutakoaren arabera, landuko diren bestelako gaien artean, autodeterminazio eskubidea, euskara eta irakaskuntza ere badaude.

Clara Ezkurra- ren aldeko meza

Joan den hilean, Aita Santuak dohatsu izendatu zuen Clara Ezkurra arrasatearra, eta hantxe izan ziren, jakina, mondragoetarraren senitartekoak ere. Orain, herrian ospatu gura dute, eta zer hobeto Uribarrin, moja jaiotzen auzoan, ospatzea baino.

Ospakizuna datorren zapatuan izango da. Donostiako gotzaiak, Joan Maria Uriartek, meza esango du Uribarriko parrokiaren; bigarren aldia da Donostiako gotzaiak meza esaten duela Uribarrin.

Edozelan ere, eta nahiz eta meza zapatuan izan, hemendik aurrera, apirilaren 22an gogoratuko dute Clara Ezkurra.

"Pedrotxo" kalean



20 urte eman ditu kartzelan.

Pedro Guridi Arozena "Pedrotxo" aske utzi zuten pasa den eguaztenean. Mondragoetarrak 20 urte eman ditu Espainiako kartzeletan. Egun hartan bertan ongiatorria egin zioten herrian, eta datorren eguaztenean beste omenalditxo bat egiteko asmoa dute.

1980ko azaroaren 7ko goizaldean atxilotu zuen poliziak Pedro Guridi, etxean. Orduetik hona, makina bat espetxetan izan da, azken urteotan Langraitzen.

1995ean bete zituen zigorraren hiru laurdenak, hala ere, kartzelan izan da orain arte.

Amara
Erean

Denboraren tunelean



Lekuan eta denboran bidaiatu zuten Zahar-Berrikoek. Balmasedara joan ziren Erdi Aroko azoka ikustera, eta ondo baino hobeto irudikatuta zegoen garai hura, argazkian ikus daitekeen moduan.

EPAkoak Donostian

Gozatzeko modukoa ere, Hel-duen Heziketa Zentrokoek Donostiara egin zuten irteera. Pasean ibiltzeaz gain, Kur-saala bisitatu zuten. Fin-finak ikasle hauek: aisialdia eta kultura uzartzea dute gustuko.



Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

UGARTE

Industria
hornigaiak

San Andres, 2 Pab.5-6
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



Egun pasa polita

Martxoaren 17an, CIMeko ikasle gazte talde bat Donostiara joan zen CIM-Klubak antolatutako ekintzetan parte hartzera: goizean, patinatzerara joan ziren, eta arratsaldean, Kutxaespazioa bisitatu zuten. Ea, bada, datorren urtean jende gehiago animatzen den!

Zorionak, bikote!

Hilaren 25ean, Rafak eta Amparok zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte. Seme-alaben partetik, zorionak, urte askotarako, eta ondo ibili Mexikon!



Uribarrikoak txapeldun

Uribarri elkarteak elkarte arteko XXIII. mus txapelketa irabazi zuen. Argazkian, ezkerretik eskuinera: Andoni Altzelai SUDCeko lehendakaria, eta Anton Bidaburu eta Patxi Sazar, bikote txapelduna. Zorionak, bie!

Ondare
Fondoanitzza

EUSKADIKO KUTXA


ONDARE FONDOANITZZA



Gidatu zeure inbertsioa eta handitu errentagarritasuna

Ondare Fondoanitzarekin nahi denean alda daiteke aurrezteko estrategia, merkatuaren gorabeheren arabera ekarpenak birbanatuta zorroa osatzen duten inbertsio-fondoaren artean. Gainera, badu beste abantaila bat ere: ez da zergarik ordainclu behar kontrataturiko fondoaren artean egiten diren aldaketengatik. Beraz, Ondare Fondoanitzak epe ertain edo luzera hobetu egiten du errentagarritasun finantzario-fiskala.

901 333 444
www.cajalaboral.es


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin
elkarlanean

Arrasateko gaztetxearen X. urter

Arrasateko gaztetxea ospakizunetan murgilduta dago hila-bete guzti honetan zehar. Izan ere, urteurren borobila bete du herrian egon den bigarren gaztetxeak, eta ibilbide luze honen baitan bizipen ugari bizi izan dituzte herriko gazteek. Horretaz gain, herritar zein kanpotar ugarik ekitaldi anitz antolatzeko zein beraietan parte-hartzeko aukera paregabea (izan) dute eta horretan darraite, noski. Izan ere, egun, erronka berriak daukate herriko gazteek; batetik, sasoi makalago honen aurrean Gaztetxea indarberritzea, eta bestetik, udalak egingo duen gaztetxe berriaren inguruko jarraipen zehatza egitea, herriko elkarte desberdinak batuz eta guztien artean nolako gaztetxea nahi duten erabakiz.

Ospitale zaharreko gaztetxeak hamar urte bete ditu Aste Santuan, eta ospakizunak apiril osoan egingo dira. Aurrez, baina, hainbat esperientzia autogestionatu egin izan dituzte herrian. Esaterako, AGAk, Arrasateko Gazte Asanbladak, udalari behin eta berriro egoitza bat eskatu eta gero, Gurea zinema zena okupatu zuen. 1987ko apirilaren 4an hartu zuten eraikin erraldoi hori, eta iraun zuten bitartean zeresan ugari eman bazuen ere, gazteek gauza asko antolatu zituzten hantxe: besteak beste, kontzertuak, ikastaroak,

antzerkiak eta hitzaldiak. Horrez gain, Sorgina irrati librea edo PGB sortu eta, era berean, AGAko ikastaro bate-tik aski ezagun egin zen Tunantes del Norte antzerki taldea jaio zen. Tamalez, garaiko udalarekin tirabira handiak izan ziren, eta baita barne arazo zenbait ere. Horrek eta kanpotik eragindako hainbat gertaera latzek gaztetxearen bukaera bideratu zuten. 1989ko martxoaren 1ean, AGAko ordezkariak gaztetxeoko giltzak udaletxean utzi zituzten. Aurrez, gazteek eskaera zioten udalari: alboan zegoen ospitale zaharra erabili ahal izatea eskatu zuten, baina ez zuten

ezer lortu. Horrela, AGA desagertuz joan eta gaztetxearen esperientzia bertan behera gelditu zen.

KASUALITATEZ OKUPATU

1991ko Aste Santuan, inor gutxik gaztetxetan pentsatzen zuenean, hainbat gaztek San Frantziskoko kalistroetatik ospitale zaharrera –Gurea zinema zaharraren parera-sartzera ohitu, eta anplifikadorea, gitarra eta ping-ponga hara eramatea erabaki zuten. Poliki-poliki, ohartu barik, gazteen topaleku handi bilakatu zen. Horrela jaio zen dagoeneko hamar urte bete dituen gaztetxea. Hasieran, jai, afari eta kontzertuak egin, eta urte hartan bertan, gazteek eraikina egokitzeko hobe-kuntzak euren kontu egin zituzten, eta horrela, egoitzari beste itxura bat eman zioten. Gazteen topagunea herri-za zabalduz joan zen. Horren harira, gaztetxeoko erabakiak hartzeko AGAKO (Arrasateko Gazteen Alternatiboaren Kofradia Organizatua) sortu

zuten.

JARDUERA UGARI ETA... KEXAK

Giroa eta antolakuntza hobetuz joan ziren, eta gaztetxeoko azpibatzaordeen bitartez, antolatutako ekintzak izugarri hazi ziren. Horien artean, musika kontzertuak nagusi baziren ere, era askotako hitzaldi, ikastaro, antzezlan eta beste hainbat ekitaldi ere betetzen joan izan dira urte hauetan zehar.

Kontzertuen eta jaien hotsa zela eta, hainbat bizilagunen kexak udalera heldu, eta AGAKOKo kideek bizilagunekin eta udalarekin zenbait batzar egin behar izan zituzten. Era berean, gaztetxean kontzertuak galarazteko saiakera egin zutenean, horren aurkako sinadurak bildu zituzten, eta ordutegia arintzeko ahalegina egin zuten. Azkenean, herritar askoren babesa lortu eta udalarekin eta bizilagunekin akordioa egin zuten.

Arazo horiek saihestuta, gazteek ekimenekin aurrera jarraitu zuten, eta era berean, gaztetxean egokitze lan berriak egin zituzten. Aurreko lanetan moduan, gazteek batutako diruaren eta ekinaren bitartez. Handik denbora luzera, berriz, AGAKOK eta udalak adostutakoaren arabera, udalak gaztetxeoko argindarra hobetu eta komunak jarri zituen.

GAZTETXEA LEKUZ ALDATU "BEHARRA"

Ospitale zaharra gaztetxe bilakatu zenetik denbora laburre-ra, Xabier Zubizarreta alkatea AGAKOKo hainbat ordezkariarekin bildu zen, azken horien asmoak jakin ahal izateko. Praktikan, gerora begira, AGAKOK eta udalak izan



Gaztetxearen itxura izugarri aldatu da 1991n okupatu zutenetik.

rrena

duen harremana noizbehinkakoa izan da; hau da, udalak ez du gaztetxearen funtzionamendua zehaztu nahi izan eta gazteek bere kasa funtzionatzen dute. Salbuespena izan zen bizilagunen kexak jakinarazi eta akordio eta negoziazioak egin behar izan zituztenean. Era berean, ikastaroren baterako eta altzariak eskuratzeko dirulaguntzak eskatu izan dituzte inoiz.

Bestalde, duela urte asko, AGAKOko partaideak udaleko Gazteria batzordeko ardu-

ro baldintzatu ditu bere funtzionamendu eta hobekuntza aukerak. Hain zuzen ere, gazteek behin eta berriro eskatu diote udalari egoitza intsonorizatzeko eta ate eta leiho zabalagoak jartzeko, baina udalak muzin egin die eskaerei. Bestalde, alkatetza aldatu zenean, egungo gaztetxearen etorkizunaren inguruan laino beltzak ezarri ziren, orduko alkatetzak ospitale zaharreko kultura etxearen proiektua aurreratu gura izan zuelako, beste irtenbiderik zehaz-

«Udalak gaztetxea behin-behinekoa dela esateak berau ez intsonorizatzea baldintzatu du»

radunekin bildu ziren, gazteei behin eta berriro jakinarazi baizieten gaztetxea halabeharrez kokagunez aldatu behar izango zutela, eta seguruenik, egoitza berria proiektuan zegoen frontoiaren azpian eraikiko zutela. Horren harira, urtetan, bi alderdiek hainbat batzar egin zituzten etorkizuneko gaztetxearen diseinua zehazteko. Era berean, ospitale zaharreko gaztetxea behin-behinekoa izateko argudioak zeha-

tu barik. Gerora begira, alkatetza berriarekin proposamen zehatzagoak heldu ziren, eta egun, Uarkape atzean gaztetxe berria kokatzeko, batzarrak egiten dihardute gazteek eta Gazteria Sailekoek.

HAMAR URTE ONDOREN, ZER?

Hainbat urtetan, gaztetxeak trantsizio garai antzekoa pairatu badu ere, azkenaldian, gazte ugari gaztetxera hurbil-



Antezelan asko ikusteko parada izan da, argazkian Tunantes del Norte taldearen *Soo Bitxo*. Bigarren eskuko azoka arrakastatsua suertatu izan da.

du eta fin antzean lanean hasi dira. Horrela, azkenengo bi hilabeteotan, domekero batu izan dira gaztetxean, 18.00etan. Horrekin lotuta, herrian deialdi zabala egin dute, gaztetxea indarberri dadin eta gazteek egoitzak eskaintzen duen azpiegitura ahal bezain beste erabil dezaten.

Halaber, eta urteurren biribila ospatzeko asmoz, apiril osoan ekitaldiak egiten dihardute. Hain zuzen ere, hilaren 6an, Spank eta Anger musika taldeak aritu ziren. Hilaren 7an, Nuevo Catecismo Católico eta Astrozombies, beste-

ak beste. 13an, Suediako I love you baby taldeak kontertua eman zuen, eta 14an, berriz, Parasma, Offset eta Ileonek. Bihar, zapatua, ere egongo da zer ikusi eta zer entzun: Mungiaiko XXL hardcore melodiko taldeak joko du. 27an, ostera, Iskanbila, Arkada Social eta Johnny Gerriwelt and the Fucking Bastards; eta 28an, Discipulos de Dionisos. Ospakizunak bukatzeko, maiatzaren 5ean, herri bazkaria eta kontzertu bat egin gura dituzte, eta baliteke oraindik beste ekitaldiren bat eranstea.

Iker Barandiaran



Aspirine taldea, "Txiri"ren omenaldian.

Unai Zelaietaren omenez



Bartzelonako eta Interreko joklari gazteek maila ona daukatela erakutsi zuten Atxabalpen.

Realaren gazte mailako Nazioarteko Txapelketa Unai Zelaie-tari eskaini gura izan dio Realak, eta final ikusgarria jokatu zuten astelehenean Real eta Athletic taldeek. Finalerako sailkatzeko asmoz, Bartzelo-

na eta Milango Inter izan genituen, eta partidu ikusgarria izan zen. Gazteak izanda ere, bi talde handi horietako joklari-ek argi utzi zuten kalitate handiko futbola egiteko gaitasuna daukatela, eta lehen mai-

lan gutxitan ikusten diren hainbat jokaldi ikusi genituen. Bartzelonako gazteek izan zuten baloia- ren jabetza, eta Interrek min handia egiten zuen kontraerasoen bidez, batez ere, Stephan Biacolok baloia han-

ketan zuela. Lehen abagune garbia Bartzelonak izan zuen, Francisco Peralek baloia zutoi- nera bidali zuenean, baina lehen zatian ez genuen golik ikusteko aukerarik izan. Bigar- ren zatian joko azkarragoa eta, zergatik ez, gogorragoa ikus- teko aukera ere izan genuen, kontuan izanda, gazteak badi- ra ere, italiarrak ondo ikasita daukatelako zein den euren jokoak. David Sanchez jokala- ri katalanak aurreratu zuen bere taldea maila handiko jaur- tiketa batekin, eta guztia era- bakita zegoela uste genuene- an, Interko hamar zenbakidu- nak, Antonio Portentek, bana- koa lortu zuen falta jaurtiketa baten. Joko ikusgarria, neurriko joklariak, eta sekulako golak Atxabalpen ikusgai izan geni- tuenak; nahiz eta finala bi eus- kal taldek jokatu zuten. Garai- pena, ordea, talde bilbotarrak eskuratu zuen: 0-2.

Gipuzkoako txapelkunak



Eskubaloiko gazte mailakoek, Gipuzkoako Txapelketa eskuratu dute.

Galtzea zer den jakin barik eskuratu dute Arrasateko esku- baloiko gazte mailakoek Gipuz- koako txapelketa, eta bide bere- tik jarraituz gero, Herrero- ren mutilek Gipuzkoako Kopa ira- bazteko aukera handia izango lukete. Guztira, hamabi parti- du jokatu dituzte, horietatik, hamar irabazi eta bi berdindu dituzte. Eskubaloian ere izaten dira istiluak, eta horren adibi- de garbia da Arrasate-Almen taldeari gertatu zaiona. Azken

partidua Bergara taldearen aur- ka jokatu zuten Bernardo Baler- diren mutilek, baina lehen zatia amaitzean, epaileak hamabi- nako berdinketa adierazi zuen. Arrasatearrak, ordea, ez zeu- den ados, 12-14 zen- eta bene- tako emaitza. Bergararrek ez zuten ezer esan, eta Arrasate- ko taldeak ez zuen bigarren zatia jokatu. Eskubaloiko federa- zioak bi puntuko zigorra eza- rri dio etxeko taldeari, eta zigor hori errekurritzea erabaki dute.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Danona KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

Uribarriko elkartea dokean nagusi

Parte hartzaile asko izan ez bazen ere, giro bikaina izan zen Egubakoitz Santuan Monterongo zelaian. Urtero moduan, Arrasateko hainbat elkarte gastronomiko elkartu ziren, dokean abilenak zeintzuk diren erabakitzeko, eta aurtan, Uribarriko elkarteko bikoteak irabazi du txapela. Ohiturak agintzen duen legez, txapeldunek Arrasateko Udalaren aurka neurtu zituzten indarrak, eta Xabier Zubizarreta alkateak eta Juan Jose Saenz zinegotziak nahiko lan

txukuna egin bazuten ere, Uribarrikoek argi utzi zuten zergatik diren txapeldunak. Udalekoek partida galdu zuten, euren ordaindu behar izan zuten partiden ondorengo sardina hamaiketakoa. Gazte-txoek ere izan zuten aukerarik dokean egiteko, baina horiek apirilaren zortzian jokatuz, domekan, eta eguraldiak lagundu ez zuenez, gazte gutxi ibili zen. Infantil mailan, Kasino elkartea ordezkatzeko zuten Karmona Agirrek irabazi zuen.




Santi Unamuno eta Juan Jose Vitoria, aurtengo doke txapeldunak. Udalak ordaindu beharko ditu 50 kilo sardina.

Elkarte arteko XXI. doke txapelketa

Sailkapena:

- | | |
|-----------------------|---------------------|
| 1.- Uribarri elkartea | 2.- Kasino elkartea |
| 3.- San Isidro | 4.-Egipe elkartea |
- Arrasateko Udala - SUDC: 37 - 52



ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Zaldibarko areto **futbola**



Horrenbeste behar zenituzten Aste Santuko oporrak?

Emaitzak

A taldea

Leya 0 - Serengeti 1
IKP 8 - Betrayer 2

B taldea

Rayo Aldeano 3 - Iriztu 9
Abocajarro 2 - New Makai 2
SasT 5 - Irati STS 7
AT Celaya 6 - Etxerat 3
Full Duplex 4 - DKB Kobate 11
Alai Gozokiak 1 - EPEH 0
Pepelus.com 8 - Txotx 2
Usotz Potroak 1 - Fragel Gol 0
AKTA 5 - KJ Basati



Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Txap Dribling	17	14	1	2	101	36	29
Aurrera Bolie	17	11	3	3	71	45	25
Bikain Akad	17	10	4	3	96	60	24
AC Surcos	17	10	4	3	85	66	24
YK Azkena	17	11	2	4	68	55	24
IKP	17	11	1	5	77	63	23
Kom Alpargat	17	11	1	5	75	75	23
Goma2	17	9	4	4	75	56	22
Lasagabaster	17	9	2	6	80	61	20
Leya	17	6	4	7	49	50	16
Serengeti	17	6	3	8	45	91	15
Txeyenex	17	6	0	11	55	72	12
Kanp Harrobia	17	5	1	11	48	84	11
Katxiporra	17	5	1	11	42	61	11
Betrayer	17	3	4	10	72	81	10
AL Ion	17	4	1	12	62	116	9
Makanaki FC	17	2	1	14	15	25	5
The Pippol	17	0	0	17	7	26	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Iriztu	17	15	1	1	94	31	31
AT Celaya	17	13	1	3	87	49	27
Irati STS	17	12	1	4	107	62	25
Rayo Aldeano	17	11	2	4	113	59	24
Etxerat	17	11	2	4	105	56	24
Kamasutra	17	10	3	4	86	48	23
Usotz Potroak	17	10	2	5	69	37	22
AKTA	17	10	1	7	72	58	21
Pepelus.com	17	10	0	7	67	58	20
DKB Kobate	17	7	3	7	63	60	17
Fragel Gol	17	7	1	9	57	53	15
KJ Basati	17	6	1	10	76	80	13
Full Duplex	17	6	1	10	56	74	13
EPEH	17	6	1	10	41	62	13
Alai Gozokiak	17	3	2	12	40	91	8
Txotx	17	3	2	12	40	91	8
Abocajarro	17	3	1	13	55	108	7
Sas T	17	3	1	13	36	105	7
New Makai	17	2	2	13	33	122	6

BIGARREN ALDIA ABIAN
Oraingo asteburuan ez da partidurik izango, eta antolatzaileek bigarren aldia prestatzen dihardute dagoeneko. Sailkapenari begira, A multzotik sailkatu den azken taldea

Goma2 izan da, 22 punturikin, baina B multzoan azken partidu bat falta da, atzeratutako partidu bat, eta ezustekoren bat edo beste egon daiteke. Horrez gain, argi izan goiko sailkapena behin-behinekoa

del, izan ere, antolatzaileek zigortutako taldeei oraindik ez diete punturik kendu. Lehen aldian, antolatzaileek sei talde kanporatu dituzte, A multzoko lau talde eta B multzoko bi talde. Bigarren aldian ez

da horrelakorik izango, hori seguru.



Bar Puerto ikus-entzunezkoa, Liburuaren Eguna ospatzeko

Liburuaren Eguna ospatzeko, *Bar Puerto*. *Bazterreko aho-tsak* ikuskizuna ekarriko du Udal Liburutegiak, Kirmen Uribe idazleak, Josu Eizagirre zinemagileak eta Mikel Urdangarin kantariak egina. Liburuaren Eguna apirilaren 23an bada ere, emanaldia 26an izango da, 19:00etan, Monterronen. Ikus-entzuteko muntaia izango da.



FIKZIOA ETA ERREALitatea

Bar Puertok gerra garaitik gaur arteko kronika eskaintzen digu. Aspaldidanik kanpoan bizi den gizon batek sorterrira itzultzean ikusten dituen aldaketan berri ematen digu,

hainbat bizilagunen testigantza jasoaz: etorkin bat, gudari bat, hiesak kutsatutako lagun bat... agertuko dira; eta gizon protagonista fikziozkoa bada ere, bizilagunak egiazkoak

dira.

Istorio hori irudiz, ahozko kontakizunez eta abesti eta poema sorta baten bidez eskainiko zaigu. Alde batetik, Eizagirrek egindako bideoa izango da ikusgai; gainera, Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin jendaurrean izango dira, bata narratzaile gisan, eta bestea bost abesti eta hainbat poema eskaintzeko.

AZOKA

Horrez gain, apirilaren 23an zabalduko dute liburutegiak urtero antolatzen duen liburu zahar eta hondatuen azoka. Bazkideek bina liburu doan hartu ahal izango dituzte, bazkide txartela erakutsita.

Tailagintza ikastaroa aukeran



Datorren astelehenean hasiko da ARTEK, Arrasateko Tailaginen Elkarteak, antolatutako taila hastapen ikastaroa; izena emateko epeak zabalik dirau. Matrikula 5.000 pezetan kostatzen da; parte hartzeko, deitu Felixi, 943794079 telefonora, edo Jose Mariri, 943797757 zenbakira.

Hogeita hamar orduko ikastaroa izango da, eta egunak ikasleekin adostuko dituzte: bi edo hiru eskola astero, ordu eta erdi edo bi ordukoak. ARTEkoen arabera, jeneralean, zortzi-hamar ikasle izaten dituzte, eta horixe da euren kopuru egokiena.

SAKONTZEA


Tailagintzan hutsetik hasi eta oinarrizko jakintzak bereganatu gura dituztenei dago zuzendua ikastaroa; hortaz, egurra eta tresnak ARTEk ipiniko ditu. Elkartearen esanetan, edozeinek parte har dezake; hori bai, hobeto moldatzen dira marrazten dakitenak.

Hastapen ikastaro hori egin dutenek izango dute sakontzeko aukera, udazken aldera jarraipen ikastaroa antolatuko duelako ARTEK, urtero egiten duen bezala.

Bi artista arrasatearren erakusketak



Ana Landa eta Txema Yarza.



Egunotan, bi artista arrasatearren erakusketekin gozatzeak aukera dugu: Txema Yarzarena, Uribarriko Hilbera kafetegian, eta Ana Landarena, Zarugaldeko Arrogoi tabernan. Lehenak argazki bilduma eskaintzen digu; bigarrenak, margolanak. Lehenengo erakusketa dute biek, eta api-

ril osoan, behinik behin, ikusi ahal izango ditugu.

TXEMA YARZA

Txema Yarzari orain 25 urte piztu zitzaion argazkilaritzarako grina, eta gaur arte jarraitu du horrekin. Paisaiak eta animalia edo loreen makroak dira nagusi bere erreperorioan,

“argazkiak ateratzeko, giza-kiok baino esker hobekoak direlako”, argazkizalearen ustez. Bidaiatzea du gustuko, eta beti aldean darama ekipoa. Iaz, 40.000 kilometro egin eta 100 argazki-bobina erabili zituen arrasatearrak. Hilberan, Urbasa, Lleida, Palentzia eta Kantabriako paisaia ikusgarriak dira nagusi. Horren ondoren, beste erakusketa bat zabalteko aukera du Txema Yarzak.

ANA LANDA

Ana Landak ere aspalditik lantzen du bere zaletasuna, margolaritza, alegia. Publizitate arloan egiten du lan, baina margolaritzan nabarmen-tzea du ilusiorik handiena. Hamar bat sari irabazi ditu Anak, marrazki eta margolan lehiaketatan.

IMANOL BARRENETXEA (EUSKALANeko LEHENDAKARIA)

«Lantegietan ahozko euskara indartzea dugu helburu»

Euskalaneak, lanean euskara sustatzeko elkarteak, batzar orokorra egin zuen martxoan. Besteak beste, lehendakari berria aukeratu zuten: Imanol Barrenetxea-Arando, bergararra jaiotzez, Arrasaten bizi eta lan egiten du. Fagor Automatioko Euskara batzordeko kide ere bada Imanol.

— Zeintzuk izan dira Euskalaneen lortu garrantzitsuenak, orain arte?


— Hasieran, lanean euskararen presentzia areagotzeko plangintzak ezarri zituztenak hiru enpresa izan ziren, baina gaur egun, bailarako hogeit bat lantegiek hartu dute euskara plangintza bana. Bestalde, orain hiru bat urte ikusi genuen lantegietako euskaldun zaharrek ez zutela euren artean euskaraz egiten, eta euskaraz ez zekien jende asko ere bazegoela. Egoera horiek guztiz aldatu ez, baina hobetzea, behintzat, lortu dugu.

— Zeintzuk dira Euskalaneen erronka berriak?

— Euskara plangintzak dituzten lantegiekin harremanak sendotu gura ditugu, eta plangintzarik ez dutenetan, haiek ezarri. Bestalde, lantegietako euskaldun zaharren eta euskaldun berrien arteko harremanak euskaraz izatea gura dugu. Azkenik, euskara plangintzek sortutako arazoei aurre egin beharra ere badago. Hurrengo fase baten, bailaran eta kanpoan ditugun harremanak sendotuta genituzke, beste eremu batzuetara hedatzeko. Batik bat, kooperatibetan ikusten dugu zer edo zer egiteko beharra.

— Zeintzuk izan dira aipatu dituzun arazo horiek?

— Batik bat, koordinazioari dagozkio. Lantegi guztietako plangintzen arduradunak elkarrekin koordinatu behar dira, horrela gauza gehiago lor ditzaketelako. Izan ere, lantegietan euskara eskolak antolatzerako-



an, alde handia dago: lantegi batzuetan ordaindu egiten dira, baina beste batzuetan, ez. Koordinatzaile batek, bakarka, oso zaila izango du hori aldatzeko; baina, bat egin da, errazagoa izango da. Gauza bera gertatzen da Eusko Jaurlaritzari baldintza hobekak eskatu gura badizkiogu. Bestalde, lantegietako zuzendaritzen aldetik inplikazio handiagoa lortu gura dugu, eta hori ere, bat eginik eskatu beharko dugu.

— Alde handia dago lantegietan eta euskaltegietan ematen diren eskolen artean?

— Bai, oso. Gure helburua da ahozko euskara indartzea, langileak berba egiterakoan geroago eta erraztasun handiagoa izatea. Euskaltegietan hizkuntzaren estruktura ikasten da: aditzak, gramatika... baina, laneko harremanetan, bertako hiztegia eta maila lantzea ikusten dugu garrantzitsuago, langilea eguneroko gauzetan moldatzeko gai izan dadin, lanpostuari dagokizkion egin beharretan.

« Laneko harremanetan, estruktura baina, bertako hiztegia eta maila lantzea ikusten dugu garrantzitsuago »

aste gazte

■ DIRULAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzaren esku-tik, kanpo merkataritzan adituak prestatzeko dirulaguntzak. Epea: apirilak 30.

■ LANA

• Bergarako Udalerako administrari laguntzaile eta administrarien lan poltsa osatzeko probetarako deialdia. Epea: apirilak 23.

• Eskoriatzako Udalak udaltzaina, administrari harreragile, kirol instalazioetako atezaina eta bi peoi behar ditu. Epea: apirilak 27.

• Nafarroako Foru Komunitateak mendiko ingeniaria behar du. Epea: apirilak 30.

• Irungo Udalean gizarte laguntzailea behar da. Epea: maiatzak 2.

• Nafarroako Foru Komunitaterako psikologoa behar da. Epea: maiatzak 9.

■ LAN-BRIGADAK

• Urtero legez, Askapena eta Komite Internazionalistak-ek udarako lan-brigadak antolatuta dituzte. Kuba, Mexiko, Txipapas, Venezuelan... lan egiteko aukera.

■ LEHIAKETAK

• Zumarraga-Urretxuko udalak argazki lehiaketa antolatuta du. Gaia eta teknika librea, zuri-beltzean edo koloretan. Epea: irailak 7.

• Urretxu-Zumarragako pintura lehiaketa. Lanaren gaia eta egiteko modua egilearen aukeran. Epea: irailak 7.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

Altamiran jairik jai zapatuan

Oporretatik bueltatzeak ekarzen duen samina kentzeko, edo gutxitzeko, behintzat, ez dago jaietara joatea baino erremedio hoberik; eta horretarako, hortxe aukeran Altamirakoak.

Zapatuan hasiko dira jaiak, eta goizean hasita gaueko ordu txikietara arteko jarduna antolatuta dute auzotarrek. Eli Altzola auzo-alkatearen esanetan, jaiak begira duten kezka nagusia jendearen parte hartzea da: "Hainbat lan hartzen dugu, gauerako, esaterako, dantzaldia antolatzen dugu eta gero, 25 bat lagun bakarrik egoten gara, eta auzoan 100 bat lagun bizi gara. Beharrezkoa da guk, bizilagunok, parte hartzea izan ere, oso zaila da kaletik jendea honaino etortzea, hemen ez baitago tabernarik, bakarrik auzoko taberna... eta jendeari beste gauza batzuk gustatzen zaizkio".

AUZOKO KONTUAK

Halaber, auzoan zer gertatzen den eta zertan dabiltzan ere galdetu diogu alkateari. Adierazi digunez, pasa den hilaren 5ean izan zuten batzarra, eta



han esandakoaren arabera, bi kezu edo kezka nagusi dituzte auzoan: bata, garbitasuna. "Herriko garbitzaileek gura dutenean jasotzen dute zaborra, eta horrela egoten da auzoa, zikin-zikin; bereziki, auzoko plaza". Aparkalekuekin ere ez daude oso gustura. Horixe da, hain justu, bizilagunen bigarren kezka nagusia: "Bereziki, Herri Gain elkarte inguruan izaten ditugu arazoak. Hortxe, justu errebueltan dago eta jendeak errebueltan bertan apartatzeko ohitura du. Eta jakina, han ez dago lekurik eta

orain, herri autobusa gora eta behera dabilela, askotan sekulako arazoak izaten ditugu, eta betiko moduan, zerbait gertatu arte ez dute ezer egingo..."

Errepide kontuekin segituz, Eli Altzolak kontatu digu duela gutxi errepidea konpondu dutela, baina ez dute erdiko marra berriro margoitu, hortaz, automobilak nahi duten lekutik ibiltzen dira.

Eta motoengatik ere kezkatuta daude auzoan: "Gernika Zumardiak, auzoa zeharkatzen du, eta justu, lehen aita-

tu dugun errebueltan zeharkatzen du zatitxo baten. Kontua da, oinezkoen pasabide horretan motor asko ibiltzen direla hara eta hona, eta askotan errepidera irteten direla inora ere begiratu barik. Horren ondorioz, behin baino gehiagotan erori da moto gidariren bat, eta istripu arriskua ere sortu izan dute".

Horixe guztia kontatu digu Elik. Zerbait gehiago gura duenak osteratxo bat egitea besterik ez du, eta jaiak izaten dira, duda barik, leku bat eta bertako jendea ezagutzeko momenturik aproposenak.

Egitaraua

- 11:30:** umeendako jolasak
- 13:00:** taberna irekiko da.
- 16:30:** etxaflero jaurtiketa eta marrazki lehiaketa.
- 18:00:** txokolate jan erraldoia, denondako.
- 18:30:** erretiratuei omenaldia eta Lore Gazteak dantza taldearen ekitaldia.
- 19:00:** meza, San Franzisko parrokiaren.
- 19:15:** buruhandiak.
- 22:00:** dantzaldia, Txinparta taldearekin.



URONDO

Elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Proiektuak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Bailarako hainbat erretiratu egoitza bakardadeari konponbide eman guran dabilta. Euren proposamena: nagusiek elkarri lagun egitea. Uribarriko etxea horretan dabil.

Nagusien lagun onenak, nagusiak

Ez da gauza bera bakarrik bizitzea eta bakarrik sentitzea. Geroago eta pertsona nagusi gehiago bizi dira bakarrik, eta geroago eta gehiago dira bakarrik sentitzen direla onartzen dutenak ere. Hori ere ez da berritasuna; bai, ordea, horri ipini gura dioten irtenbidea: nagusiek eurek elkarri laguntzeko boluntario izatea. Debagoienero hainbat herritako erretiratu etxeetan bide horretatik dihardute, eta baita Arrasaten ere.

Uribarriko erretiratuen etxeak apirilaren hasieran egin zuen batzar orokorra. Orduantxe mahairatu zuen lehendakariak, Jabier Salaberrik, proposamen hori.

Salaberrik berak onartu du oraingoz ez duela erantzun

txundigarrik izan; agian, ideia berri samarra delako, edo jendeari konpromisoaren zama pentsarazten diolako. Ez da kasu bakarra; Arrasateko gainerako erretiratuen etxeetan ere ez da horrelakorik egiten.

BOLUNTARIOAK

Uribarriko egoitzako ardurdunaren esanetan, baina, oso ekintza sinplea eta erraza izango litzateke. Giza-boluntariotza programa horretan etxeko bazkideren bat bakarrik baldin badago, edo ezbeharren bat izan eta ezin badu egoitzara joan, beste bazkide batzuk joango lirateke laguntasuna ematera. Haren etxera joango litzazkioke bila.

Eta gero, egoitzara ailegatuta, zer? Karta jokoa? Hori

da eguneroko errituala, ez bakarrik Uribarrin, baizik eta erretiratuen egoitza gehiengotan. Baina, hango lehendakariak gustura ikusiko luke, hainbeste jokoren orde, berriek gehitxoago: "Ez da apenas elkarriketarik egiten. Nik proposatzen dut jendea elkartu eta euren kontuez berba egitea, txutxumutxutan aritu edo telebistan agertu dena komentatzea; besterik ez", dio Salaberrik.

EZ DA LANA

Egitasmoak ez du zerikusirik

zerbitzu publikoek eskaintzen duten beste aukera batekin: alegia, pertsona hori zaintzeko langile bat hartzea. Erretiratuek ez lukete horrelakorik egingo: ez lukete pertsona nagusiaren zaintza bere gain izango. Era berean, ez lukete pertsona horrekin inongo konpromisorik hartu beharko.

Kontuak kontu, Debagoienero erretiratuak hasi dira konturatzen elkarri laguntasun handiagoa eman beharraz. Lehen, bakarka egiten zuten; orain, guztien artean egitea izango da erronka.

"Jendea elkartu eta euren kontuez berba egin dezatela"

Liburua, idazten denetik irakurtzen den arte

Igo Autobusera Astelehenean, 10:15ean

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, liburua izango da protagonista *Igo Autobusera* saioan. Liburu batek hainbat epe bizi ditu irakurlearengana helitzen den arte. Hasteko, hortaz, idazle batekin egingo dugu berba, gero, argitaletxe batera joko dugu, eta azkenik, irakurle amorratu batengana hurbilduko gara, liburua esku artean dugula.



Txema Yarza argazkilaria

Martitzenean, hilak 24, argazkilaritaz jardungo dugu Txema Yarzarekin, 10:15ean. Txema arrasatearra da, eta aspaldidanik, ikusten duen edozeri argazkia ateratzen dio, zaletasun handia du.

Nahiz eta argazkilaria profesionala ez izan, bere kabuz ikasi du, teknika hobetuz, eta egun, oso argazki ikusgarriak egiten ditu. Hasiara batean, auto lasterketak ziren bere objektiboaren helburu, baina egun, paisaia eta makroak ditu gustukoak. Egunotan, gainera, Txemaren argazkien bilduma bat jendaurrean izango da Arrasateko Hilbera tabernan.

Pedro Guridiri elkarrizketa

Pedro Guridi arrasatearra 20 urte bete ditu preso estatuko hainbat kartzelatan. 1980an atxilotu zuten, eta 20 urtez kartzelan egon ondoren, joan den apirilaren 11n aske utzi zuten, 1995ean bete zituen arren zigorraren hiru laurdenak. Espetxean bizitako urteez berba egingo dugu "Pedrotxo"rekin; Arrasate zelan aurkitu duen ere galdetuko diogu eta baita Euskal Herriaren gaur eguneko egoeraz ere. Datorren eguaztenean, hilak 25, 10:15ean.

Kolaboratzaileak lanera

Gogora ezazue datorren astelehenean bueltatuko direla lanera irratiko kolaboratzaileak. Hortaz, iluntzero, 20:00etatik 22:00etara, eta zapatu goizetan eurak izango dituzue lagun. Eurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, hauxe da irratiko e-posta: irratia@goiena.com, edo telefono zenbakia: 943- 71 17 31

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Apirilak 28: **Rage + Vicious Rumors** (22:00)
(sarrera 2)

Egun hauetarako **SARRERAK**
zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren
egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Zein Kontzertu?

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31
edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.




Oraingo asteko argazki zaharra ez da bestetan bezain zaharra, baina oso herrikoa da, dokearen gainekoa da eta; eta dokean, jakina denez, Mondragoen bakarrik joka-

tzen da. 1985eko txapelketako sari banaketa jasotzen du gure argazkiak. Betiko moduan, Alkartu elkartearen egin zuten, eta hortxe ageri dira antolatzailerik batzuk, udaleko ordezkaria eta, jakina, irabaz-

leak. Ezkerretik hasita, hauexek dira protagonistak: Paco, Bide Gain elkartearen ordezkaria; Jesus Mari Artze, SUDCeko presidentea; Jesus Aspiazu, SUDCeko diruzaina; irabazle-letariko bat (izena falta da,

lehengo Ederra tabernako jabea); Arrieta, beste irabazlea; eta Alvaro Arregi, Arrasateko orduko alkatea.

Argazkia: SUDC
Berriemailea:
 Jesus Maria Artze



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



cerámicas
URIBARRI

*Zure etxeko
txokoak janzten*

Zeramika erakusketa eta salmenta

Uribarri etorbidea, 22 • ARRASATE Tel.: 943 77 11 63

IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

**INGELES
FRANTSESA
ALEMANA**

- Ekintza turistikoa eta ludikoekin
- Eta **CIMek** beti eskaintzen dizun bermearekin
- **Ingeleseko udalekuak Lizarran haurrentzat**

Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02



Arrasate
Avda. de Álava, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Vitoria-Gasteiz
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

Uda honetan

INGALATERRA
ALEMANIA
FRANTZIA
KANADA
IRLANDA
EE.BB.



E-mail: secretaria@cim-idiomas.com • http: www.cim-idiomas.com



Maalako Errabala, 13 behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 92 76